

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Plentziako Udala

Ayuntamiento de Plentzia

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	10
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	11
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	12
III.2 Langileria.....	12
III.3 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	12
III.4 Kontratazioa.....	13
III.5 Beste batzuk.....	14
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	15
V. URTEKO KONTUAK.....	18
V.1 Udala.....	18
V.2 PLENBISA.....	21
ERANSKINAK	23
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera.....	23
A.2 Kontabilitatea eta aurrekontuak	23
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	25
A.4 Transferentziek eta diru-laguntzek eragindako sarrerak	26
A.5 Langileria-gastuak.....	27
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	29
A.7 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	30
A.8 Inbertsio errealak, ibilgetua eta epe luzeko finantza inbertsioak.....	31
A.9 Zorpetzea	32
A.10 Zordunak	32



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.11 Hartzekodunak	33
A.12 Diruzaintza	34
A.13 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	34
A.14 PLENBISA.....	35
A.15 Kontratazioaren analisisa.....	35
ABREVIATURAS	37
I. INTRODUCCIÓN.....	39
II. OPINIÓN.....	40
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	40
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	41
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	42
III.1 Presupuesto y contabilidad	42
III.2 Personal.....	42
III.3 Transferencias y subvenciones concedidas	42
III.4 Contratación	43
III.5 Otros	44
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	45
V. CUENTAS ANUALES	49
V.1 Ayuntamiento.....	49
V.2 PLENBISA.....	52
ANEXOS	53
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	53
A.2 Contabilidad y presupuestos	53
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	55
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	56
A.5 Gastos de personal	57
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	59
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	60



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8 Inversiones reales, inmovilizado e inversiones financieras a largo plazo ...	61
A.9 Endeudamiento	62
A.10 Deudores.....	62
A.11 Acreedores	63
A.12 Tesorería.....	64
A.13 Actuaciones urbanísticas y planeamiento	64
A.14 PLENBISA	65
A.15 Análisis de contratación	66

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a
Vitoria-Gasteiz, 24 de julio de 2019





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AASS	Arau Subsidiarioak.
AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BPG	Barne Produktu Gordina.
DDBN	Diru-laguntzen Datu Base Nazionala.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
ED	Errege Dekretua.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
FA	Foru Araua.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
HLHI	Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastola.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE:	Toki Erakundeak.
XG	Xedapen Gehigarria.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Plentziako Udalaren 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Plentziako udalerririk 4.387 biztanle zituen 2017ko urtarrilaren 1ean eta honako hauen atal da: Uribe Kostako Mankomunitatea (gizarte zerbitzuak, berdintasuna, euskara, iraunkortasuna-Ekoguneak eta kontsumoa) eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (uraren ziklo osoaren kudeaketa).

Gainera, 2017ko ekitaldi itxieran PLENBISA hirigintzako sozietatean (ikus A.14) % 100eko partaidetza zuen eta Uribe Kostako Behargintza, SLn, % 12,81ekoa.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. 2017ko ekitaldian, epai baten ondorioz, Udalari hirigintzako aholkularitza zerbitzua ematen aritu zen pertsona bat lan kontratu mugagabe ez finkoko langile izatera aldatu zen (ikus A.5).

KONTRATAZIOA

2. Udalak 2017ko ekitaldian energia elektrikoa hornitzeko zerbitzua kontratatu zuen, guztira 143.840 euroren zenbatekoan, esleipen prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta SPKLTBren 173.f artikulua xedatutakoa urratuz. Kontratazio hori prozedura irekia baliatuta izapidetu behar zatekeen.

Epaitegi honen iritzira, Plentziako Udalak, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik Egoeraren Balantzean jasotako ibilgetu ez finantzarioaren saldoak 2017ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duenik, ezargarriak zaizkion printzipio eta balorazio irizpideei jarraikiz. Udalak ez du ibilgetu hori amortizatzeko zuzkidurarik erregistratu (ikus A.8).
2. Kontu Orokorrak ez ditu PLENBISA udal sozietatearen finantza-egoerak jasotzen.
3. Udalak ez du txostenean Udalaren Kontuetan eragina izan dezakeen kontingentzia baten berri ematen, 2000ko urtean izenpetutako hirigintzako hitzarmen bati dagokionez jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtso batetik eratorria (ikus A.13).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Plentziako Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten du; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan, alde batetik, jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten hutsak adierazten dira; eta bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2016ko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Faren 15.2 artikulua agintzen duen moduan (ikus A.2).

III.2 LANGILERIA

- Idazkaritza bigarren mailako modura sailkatua duten udaletan Idazkaritza eta Kontuhartzaitzako bi postu bereizi izan behar dira, nazio mailan jarduteko gaituta dauden toki-administrazio funtzionarioentzat gordeak eta gainera, Diruzaintza izeneko lanpostu bat existitu behar da. Udalaren Lanpostu zerrendak Idazkari-kontuhartzaitzalearen lanpostu bakarra besarkatzen du eta ez du Diruzaintzakoa aurreikusten.
- Udalaren LZ ez da plantillaren egiturazko beharrietara egokitzen tokian tokiko aparkalekuko begiraleei eta hondartzako zerbitzuak artatu eta garbitzek kontratatutako langileei dagokienez eta behar horiek aldi baterako kontratazio bidez betetzen dira (ikus A.5).

III.3 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituena.
- Ez da betetzen informazioa emateko obligazioa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari, Diru-laguntzen Lege Orokorren 18. artikulua arautzen duena.
- Udalak ez die diru-laguntzen onuradunei zerga edo Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan gaurkotuta egoteko betekizuna eskatzen; ezta Diru-laguntzen Lege Orokorren 13. artikulua agintzen dituen gainerako betekizunak bete dituztela egiaztatzeko ere.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.4 KONTRATAZIOA

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak finkatu, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.

Kontratazio espedienteak (ikus A.15)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden zortzi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- Guztira 809.408 euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontratutan (2, 3 eta 4 espedienteak) honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
 - Formula bidez zenbagarriak diren irizpideak eskaintza onenarekiko proportzioa abiaburu hartuta balioztatzen dira eta era horretan, pleguetan finkatutako mugak betetze hutsak bermatu egiten du balorazio horretan puntuak eskuratzea.
 - Esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen da, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek aurkeztea zehaztu gabe.
- Guztira 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako sei kontraturen pleguek (1, 2, 3, 4, 5 eta 7 espedienteak) ez dute apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agindutako hainbat ohar edo informazio jasotzen, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez. Aipatutako kontratuen esleipen ebazpenek ere ez dute ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen, aipatutako arauak agintzen duen moduan.
- 359.151 euroan esleitutako kontratu batean (1. espediente), ez dago jasoa lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitara eman denik.

Aipatutako kontratua ez zen gauzatu esleipena gauzatu eta ia bi hilabete igaro ziren arte, nahiz presako prozedura bidez izapidetu zen. Gainera, egikaritzan ere atzerapenak izan dira, epe luzaketarik onartu denik edo kontratistari zehapenik jarri zaionik ere erasota ez dagoela. Obrak hartzean atzerapena lau hilabetekoa izan da eta egikaritza epea hiru hilabetekoa.
- 2017ko ekitaldian gastuak egikaritu ziren zegozkion kontratuen indarraldia amaitu ostean harik eta esleipen berriak indarrean sartu arte (2, 3 eta 6 espedienteak), hurrenez hurren 77.954 euroren, 44.177 euroren eta 25.724 euroren zenbatekoan. Lehenengo bi kasuetan kontratu berria aurrekoa iraungi aurretik abiarazi zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.5 BESTE BATZUK

Ondarea eta ondasun-zerrenda

Udalak ez du Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasun eta baliabideen zerrendarik (Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 112.3 artikulua).

Gardentasuna

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko Udalak web orrian argitaratu behar luke, besteak beste, urteko kontuak, aurrekontuaren egikaritzari eta aurrekontuaren egonkortasunaren eta finantzaren jasangarritasunaren helburuak betetzeari buruzko informazioa, tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urtek aitortpenak eta emandako diru-laguntza eta laguntzei buruzko datuak.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015	2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.773	1.927	1.838	409	448	419
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	2.869	2.630	2.561	661	611	584
Ondare sarrerak (5. kap.)	42	37	64	10	8	14
A. Diru-sarrera arruntak	4.684	4.594	4.463	1.080	1.067	1.017
Langile-gastuak (1. kap.).....	1.398	1.509	1.477	322	351	337
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	2.002	1.822	1.975	462	423	450
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	430	436	458	99	101	104
B. Funtzionamendu gastuak.....	3.830	3.767	3.910	883	875	891
Aurrezki gordina (A-B).....	854	827	553	197	192	126
- Finantza gastuak (3. kap.).....	5	3	2	1	1	1
Emaitza arrunta.....	849	824	551	196	191	125
- Maileguren amortizazioa (9. kap.).....	125	58	59	29	13	13
Aurrezki garbia	724	766	492	167	178	112
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	.	.	-	.	.
Jasotako kapitaleko diru-laguntzak (7. kap.).....	40	215	73	9	50	16
- Inbertsio errealak (6. kap.)	681	646	572	157	150	130
- Emandako kapitaleko diru-laguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(641)	(431)	(499)	(148)	(100)	(114)
Eragiketa ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)	208	393	52	48	91	11
Diruzaintza Geldikina	1.732	2.054	2.060	399	477	470
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	1.724	2.005	2.060	397	466	470
Zorpetzea.....	235	178	119	54	41	27

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2016an % 2 egin dute behera aurreko ekitaldiaren aldean eta beste % 3 egin dute behera 2017an; honenbestez, aztertutako aldian guztira % 5eko bariazio negatiboa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek % 9 egin dute gora 2016ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean, baina % 5 murriztu ziren 2017an; horrek aztertutako aldian % 4 inguruko igoera izatea ekarri du. EIOZ kontzeptuan aitortutako sarreren fluktuazioaren eragina kenduta, bilakaera antzekoa litzateke, nahiz apalagoa; adierazitako bariazio-ehunekoak gutxi gorabehera puntu bat jaitsiko lirateke.
- **Zerga zuzenak:** % 8 egin dute gora aztertutako aldian Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zergaren eraginez, nagusiki, eta neurri txikiagoan Trakzio mekanikodun ibilgailuen zergaren eraginez. Lursailen balio igoeraren gaineko zergak



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

aztertutako aldiaren hasieran oso zifra txikiak erregistratu ditu, izan ere 2015ean ezargarria zen ordenantzak beste molde bat baliatzen zuen likidazioak kalkulatzeko.

- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek % 7,5 egin dute behera aztertutako aldian, 2016an % 15 igo baziren ere, % 20 murriztu baitira 2017an. Bariazio hori gertatu da, batik bat, 2016ko ekitaldian 78.800 euroren diru-sarrerak erregistratu zirelako hirigintzako aprobetxamendu kontzeptuan.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Diru-sarrera hauek bilakaera negatiboa izan dute aztertutako aldian, % 8 jaitsi dira 2016an eta % 3, 2017an, eta horiek % 11 inguruko jaitsiera metatua eragin dute. Bilakaera hori BFAtik eratorritako sarrerek izan dutenaren oso antzekoa izan da, batik bat itunpeko zergetan parte hartzeagatik sarrerek (Udalkutxa); aztertu diren ekitaldi guztietan sarrera hauek kapituluko diru-sarrera guztien % 98 inguru egin dute.

Funtzionamendu-gastuak: Sarrera arruntek ez bezala, gora egin dute aztertutako aldian (% 2). Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** 2016an langile gastuak % 8 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean, batik bat ordainsariak eguneratu izanaren ondorioz, urte horretako uztailean lanpostuen balorazioa onartu ostean (ikus A.5). Halaber, langileen bizitza-aseguruen kontzeptuko gastuak, 2015ean ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari zegokion kapituluan kontabilizatzen zirenak, 2016an langile-gastu modura erregistratzera aldatu dira. 2017an langile-gastuak % 2 egin dute behera eta nagusiki korporazio-kideen eta lan-kontratuko langileen ordainsariak eragiten ditu, Gobernu Batzarra kendu eta langileak murriztu izanaren ondorioz, hurrenez hurren. Komeni da adieraztea ekitaldi horri dagokion ordainsari-igoera 2018ra atzeratu dela (ikus A.5).
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** 2016an % 9 egin dute behera aurreko ekitaldiaren aldean, nahiz 2017an % 8 igo diren berriz; honenbestez, aztertutako aldian % 1eko bariazio negatiboa izan dute. Aztergai izan dugun aldian murrizketa esanguratsuenak izan duten gastuak energia elektrikoaren hornidurari eta bide garbiketari dagozkionak dira; kontrara, gastu igoerarik handiena gizarte eta kulturako jarduerekin lotutako haiek eta ibilgetuaren mantentze-lanek izan dute.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Kontzeptu honek eragindako gastuak % 6,5 egin du gora aztertutako aldian eta igoeraren zatirik handiena 2017ko ekitaldian gertatu da, taldeak eta kultura-jarduerak finantzatzeko emandako diru-laguntzek izandako igoeraren ondorioz.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Magnitude horiek saldo positiboa erakutsi dute aztertutako aldiaren hiru ekitaldietan, nahiz % 30 baino gehiago egin duten behera; honela, bada, 2015eko ekitaldian sarrera arrunten gainean % 18 eta % 15 egitetik, 2017an sarrera arrunten % 12 eta % 11 egitera aldatu diren, hurrenez hurren.

Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboa izan du aztertutako aldi guztian eta bereziki handia izan da 2015eko ekitaldian, kapital transferentzia eta diru-laguntzek eragindako diru-sarrerek izan duten beheraldiaren ondorioz. 2017an sarrera hauek ez badute 2016ko mailaren pareta jotzen ere, inbertsio errealek behera egiteak eragin du kapitaleko eragiketen emaitzaren saldo negatiboa ez hain handia izatea. Azterturiko ekitaldi guztietan aurrezki garbi positiboak berdindu egiten ditu kapital eragiketen emaitza negatiboak.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: Positiboa izan da aztertutako aldi guztian zehar, nahiz % 75 egin duen behera.

Diruzaintza-geldikina: % 19 egin du gora aurreko ekitaldiaren aldean eta ez du apenas aldaketarik izan 2017an.

Zorpetzea: Ia % 50 egin du behera aztertutako aldian, egindako amortizazioen ondorioz. Aztertutako aldian ez da beste zorpetze eragiketarik gauzatu.

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, gastuaren eta zor publikoaren araua betetzen dela adieraziaz. Txostenak Udalari dagokionez honako hau jasotzen du 2017ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2016ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak –diruzaintza geldikin bidez finantzatutako gastuak aintzat hartu gabe- ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziatzako hazkuntza tasa gainditu (% 2,1).
- Zor publikoaren helburua bete da, egiazko zor biziaren bolumena 2017ko abenduaren 31n finantzazkoak ez diren sarreraren % 60 baino txikiagoa izan baita, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarraren arabera.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	1.210	-	1.210	1.277	1.201	76	% 106
2. Zeharkako zergak	A.3	105	-	105	79	74	5	% 75
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	506	-	506	482	481	1	% 95
4. Transferentzia arruntak	A.4	2.529	12	2.541	2.561	2.545	16	% 101
5. Ondare-sarrerak.....		21	-	21	64	64	-	% 305
7. Kapitaleko transferentziak.....	A.4	45	30	75	73	73	-	% 97
8. Aktibo finantzarioak		-	1.219	1.219	-	-	-	E/E
SARRERAK GUZTIRA		4.416	1.261	5.677	4.536	4.438	98 (*)	% 102

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAIN.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak.....	A.5	1.567	37	1.604	1.477	1.449	28	% 92
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ...	A.6	2.077	224	2.301	1.975	1.886	89	% 86
3. Gastu finantzarioak.....		2	-	2	2	2	-	% 100
4. Transferentzia arruntak	A.7	485	-	485	458	458	-	% 94
6. Inbertsio errealak	A.8	216	1.000	1.216	572	556	16	% 47
8. Aktibo finantzarioak	A.8	10	-	10	10	10	-	% 100
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	59	-	59	59	59	-	% 100
GASTUAK GUZTIRA		4.416	1.261	5.677	4.553	4.420	133	% 80

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak	A.10	643	14	176	453
Ordaintzeko dauden saldoak		186	14	172	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA					-



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	4.536
Obligazio aitortuak.....	(4.553)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(17)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(17)
Finantzaketako debideratzeak.....	49
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	666
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	698

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (A)	2.285
KOBRAZTEKO DAUDEN SALDOAK 2017/12/31N (ikus A.10) (B)	551
Diru-sarrerren aurrekontukoak, unekoa.....	98
Sarrerren aurrekontukoak, itxia.....	453
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketetakoak.....	-
ORDAINTZEKO DAUDEN SALDOAK 2017/12/31N (C)	347
Gastuen aurrekontukoa, arrunta (ikus A.11).....	133
Gastuen aurrekontukoa, itxia.....	-
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.11).....	214
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (ikus A.10) (D)	7
DIRUZAINZAKO GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D-E)	2.496
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(436)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina.....	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	2.060
ZORPETZEA 17.12.31N (ikus A.9)	119



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2017	2016		ERANSKINA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		28.085	27.503	ONDARE GARBIA		29.939	29.333
Ibilgetu ez-materiala	A.8	445	429	Ekarritako ondarea.....		10.246	10.246
Ibilgetu materiala	A.8	27.577	27.034	Sortutako ondarea		19.611	19.031
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.8	13	-	Jasotako diru-lag.,egotzi gab.		82	56
Taldeko enpresetan inbertsioak	A.8		50	40.....			
				PASIBO EZ-ARRUNTA	A.9	62	120
				Epe luzeko zorrak		62	120
AKTIBO ARRUNTA		2.407	2.506	PASIBO ARRUNTA	A.11	491	556
Zordunak eta kobr. bst knt b.	A.10	122	186	Zorrak epe laburrera		220	236
Eskud. eta best. akt. baliokid.	A.12	2.285	2.320	Hartzed. eta ordain. bst knt b.		271	320
AKTIBOA, GUZTIRA		30.492	30.009	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		30.492	30.009

2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2017	2016
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	1.737	1.860
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	2.579	2.789
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	2	-
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	127	105
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	4.445	4.754
Langileria-gastuak	(1.479)	(1.510)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(458)	(436)
Hornikuntzak.....	-	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(2.020)	(1.868)
Ibilgetua amortizatzea.....	-	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(3.957)	(3.814)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	488	940
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	29	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	517	940
Sarrera finantzarioak.....	6	15
Gastu finantzarioak.....	(2)	(3)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(38)	15
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	(34)	27
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	483	967



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 PLENBISA

EGOERAREN BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan		
ERANSKINA	2017	2016	ERANSKINA	2017	2016	
			ONDARE GARBIA	48	50	
			Kapitalekoak..... A.8	60	60	
			Aurreko ekitaldien emaitzak.....	(10)	(5)	
			Ekitaldiaren emaitza.....	(2)	(5)	
AKTIBO ARRUNTA	38	30	PASIBO ARRUNTA	(10)	(20)	
Zordunak eta kobratz. bst knt b.....	2	2	Epe laburreko zorrak (*)..... A.8	(10)	(20)	
Eskud. eta best. akt. baliokid.....	36	28				
AKTIBOA, GUZTIRA	38	30	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	38	30	

(*) Gauzatu gabeko kapital-ekarpenak.

2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK		Euroak milakotan	
		2017	2016
Bestelako ustiapen gastuak (Ikus A. 14).....		(2)	(5)
USTIAPENAREN EMAITZA		(2)	(5)
EMAITZA FINANTZARIOA		-	-
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(2)	(5)
EKITALDIKO EMAITZA		(2)	(5)



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA

Plentziako Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Lege horiek artikulatuan udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen dituzte; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu horiek guztiak nagusiki hauen bitartez finantzatzen dira:

- Udal zergak.
- Berariaz aurrez aipatutako zenbait zerbitzu finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- Partaidetza itunpeko zergetan eta ez itunpekoetan.
- Ondare sarrerak
- Diru-laguntzak.
- Kreditu eragiketak

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

2017ko ekitaldirako aurrekontua 2017ko apirilaren 11ko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hil bereko 25ean eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2017ko ekainaren 2an eman zen argitara BAOn.

Ondoren, 2017ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	Euroak milakotan		
	KREDITU TXERTAKETA	KREDITU GEHIGAR.	GUZTIRA
1. Langileria-gastuak	-	37	37
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa	143	81	224
6. Inbertsio errealak	433	567	1.000
GASTUAK GUZTIRA	576	685	1.261

Aurrekontuko gainerako aldaketak finantzatzen dira Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2016ko ekitaldi itxieran, 1,2 milioi euroren zenbatekoan.

Ekitaldian aurrekontua aldatzeko hiru espediente izapidetu ziren eta horietako bi Alkatetza Dekretu bidez onartu zituzten; hirugarrena, berriz, Udalbatzara eraman zen onartzeko. 4,4 milioi euroren hasierako aurrekontua % 28,6 gehitu zen eta behin betiko aurrekontuak 5,7 milioi euro egin zituen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Andra Mari Bidea urbanizatzeko proiektua (1)	359
Areatzan mendatetik lanak egikaritzea (Gorlizko Udalarekin hitzarm.).....	55
Azpiegitura eta ondas. orokorrak	37
Azterketak eta lan teknikoak	29
Bestelako txikiago batzuk	96
TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	576
Jai Alai pilotalekua zaharberritzea	415
Efizientzia energetikoa III. fasea	73
Andra Mari Bidea urbanizatzeko proiektua (1)	36
Udaltzaingoa ordeztu/indartzea	25
Plentziako HLHI mantentzeko gastuak	25
Bestelako txikiago batzuk	111
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	685

(1) Ikus kontratu nagusiaren analisisa A.15en.

2017ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2018ko martxoaren 26ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2018ko uztailaren 26ko Udalbatza bitartez.



A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2017ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	896
TMIZ.....	268
HILBIZ.....	105
JEZ.....	8
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	1.277
EIOZ.....	79
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	79
HHSak jaso, tratatu eta desegiteagatiko tasa, eta estolderia tasa.....	214
Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa.....	87
Arpillaoko aparkalekuaren erabilera pribatuagatiko tasa.....	56
Trafikoko isunak.....	43
Bestelako txikiago batzuk.....	82
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	482
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	1.838

BFAk Plentziako Udalari OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko zerbitzuak ematen dizkio, bai borondatezko aldian, bai premiamendukoan, hasiera batean hurrenez hurren 1989 eta 1992 urteetan formalizatutako lankidetzaz hitzarmenen indarrez. Udalak 2017an kontabilizatutako kopuruak ekitaldian sortutako diru-sarrerei eta aurreko ekitaldiko likidazioei dagozkie, zeinetan oraindik ez baitzen zorpetze irizpidea aplikatzen. 2017ko ekitaldiko likidazioen 30.036 euroren saldoa, BFaren aldekoa, ordaindu gabe modura dago jasoa aurrekontuz kanpoko kontu batean (ikus A.11).

Udalak 1992an Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoan sartzeko erabakia hartu zuen, zeinak udalerrian uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua ematen baitu, eta zerbitzuak eragindako gastuak eta sarrerak bere gain hartu zituen. Halaber, Udalak Partzuergoari laga dio Hiri hondakin solidoak jaso, tratatu eta desegiteagatiko tasa eta estolderia-tasa kobratzeko kudeaketa-lana.

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldian eta 2018ko uztailaz geroztik lankidetzaz hitzarmena du BFArekin betearazte bidean diru-bilketa egiteko; data horrez geroztik balio gabe geratu da Udalak 1982az geroztik kanpoko agente batekin diru-bilketa kudeatzeko zuen kontratua.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2017ko ekitaldian transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEKOAK
Estatuarenak	4	-
EA Erenak	23	-
AO: Hainbat diru-laguntza.....	11	-
Emakunde: Berdintasuna.....	12	-
BLHrenak	2.534	73
BFA: Zerga itunduetan partaidetza Udalkutxa.....	2.496	-
BFA: Efizientzia energetikoa	-	43
BFA: Hainbat diru-laguntza.....	13	-
Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa. Txurrua kalea birjartzeko proiektua.....	-	30
Eskualdeko udalak Plentziako HLHren gastuak finantzatzeko ekarpenak.....	25	-
GUZTIRA	2.561	73

Udala modu mankomunatuan ematen diren zerbitzuak finantzatzea xede duten diru-laguntza jakin batzuen jabe da. Diru-sarrera eta gastuak kontularitzan Uribe Kostako Mankomunitateak erregistratze ditu, bera baita zerbitzu horien kudeatzailea (Gizarte Larrialdietako Laguntzak, Gizartekutxa SAAD eta gizarte zerbitzuen karterako aparteko funtsa).

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2016ko eta 2017ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONZEPТУA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2017	AITORT. 2016	17/12/31 LZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak	52	69	E/E	2
Funtzionarioen ordainsariak.....	721	706	(2) 12	(1) 15
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	325	357	(2) 13	9
Udan kontraturiko lan-kontratuko langileen ordainsariak.....	41	37	E/E	
Osagarriak eta sariak	-	45		
Gizarte Segurantza	286	253		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	48	38		
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	4	2		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	1.477	1.507	25	26

(1) 3 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

(2) 2017ko ekitaldiko LZn barne hartutako lanpostuetatik 3 bereizi gabe lan-kontratuko langileentzat edo funtzionarioentzat gordeta zeuden. Adierazitako ekitaldiaren itxieran horietako bi lan-kontratuko langileekin zeuden okupatuta eta hirugarrena funtzionarioarekin, eta halaxe banatu dira taulan.

Ordainsariak

Udalbatzak 2016ko martxoaren 17an erabaki zuen behin-behineko izaerarekin onartzea kanpoko enpresa batek egindako Lanpostuen Balorazioa. Espedientea jendaurrean azaltzeko epea igaro eta zenbait udal langilek aurkeztutako erreklamazioak ezetsi ondoren, balorazioa behin betiko onartu zen eta BAO 2016ko abuztuaren 10ean eman zen argitara.

Udalak langileei 2017an ordaindutako ordainsariak ez dute bariaziorik izan aurreko ekitaldikoan aldean. Udalbatzak 2018ko martxoaren 22an egindako bilkuran erabaki zuen ordainsari horien gainean % 1eko igoera aplikatzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18.2 artikuluan erabakitakoari jarraikiz; erabaki horretatik eratorritako gastuen kontabilizazioa eta ordainketa 2018ko ekitaldian egin zen.

LZ eta plantilla

2017ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioak	1	(*) 1
Langile lan kontratudun finkoak	-	(*) 2
Bitarteko funtzionarioak	4	4
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	6	6
Lan-kontratu mugagabe ez finkoko langileak	1	-
GUZTIRA	12	13

(*) Ezintasun iraunkorreko egoerei lotutako bajak.

2017an amaitu zen lehiaketa-oposaketa bidez 2010eko ekitaldiko Enplegu Publikoaren Eskaintzako Administrazio Orokorreko administrari plaza bat betetzeko hautapropa. Hautatutako langilea praktikaldia betetzen ari zen oraindik ekitaldi itxieran, nahiz atal honetan buru egiten duen taulan karrerako funtzionario modura ageri den; 2018ko otsailean beretu zuen funtzionario izaera.

Aldi baterako lan kontratuko langileen altak eta bajak dira uztailetik iraila bitartera egindako kontratazioak, aparkalekuko zaintzaile eta hondartzako zerbitzuak zaindu eta garbitzeko langileenak. Kontratazio horiek urtero errepikatzen dira uda sasoiari.

Udalarekin zenbait administrazioko kontratu izenpetu zituen pertsona batek eskatu zuen Udalarekin zuen harremana lan-harreman aitor zedila; ordea, adostasun eza zela-eta, auzi-eskea aurkeztu zuen, zeina baietsi baitzen 2017ko uztailearen 12an ebatzitako epai bidez. Aipatutako epaia betez, udal plantillako langile bihurtu zen lan-kontratu mugagabe ez finko modura eta Udalak kaleratuz geroztik ordaindu ez zizkion hartzeak ordaindu behar izan zizkion, 11.935 euro (ikus A.6). Epaia ikusita, eta Udalak ez altarik eman ez kotizaziorik egin ez zuela-eta, Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzaren Probintziako Ikuskaritzak ofiziozko alta abiarazi zuen 2014ko urtarriletik 2017ko abuztura bitartean eta likidazio- eta arau hauste-aktak jaulki zituen 2018ko apirilean, hurrenez hurren 40.647 eta 3.126 eurorenak. Dagozkion gastuak 2018ko ekitaldian kontabilizatu eta ordaindu dira.

A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Obligazio aitortuak
Errentamenduak	7
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	561
Azpiegitura eta ondas. orokorrak	214
Eraikin eta bestelako eraikuntzak	147
Makineria, instalaz. eta tresneriarena	175
Beste ibilgetu bat	25
Bulegoko materiala	44
Hornidurak	201
Energia elektrikoa	135
Bestelako hornigaiak.....	66
Komunikazioak	41
Garraioak	4
Aseguru sariak	19
Zergak	12
Hainbat gastu	365
Jaiak eta herri-ospakizunak	85
Jarduera soziokulturalak.....	67
Euskara indartzeko kultura-jarduerak	37
Topaleku zerbitzua.....	30
Bestelako hainbat gastu.....	(*) 146
Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	718
Kale garbiketa (ikus A.15)	236
HHSen zabortegean uztea (Garbiker)	116
Goñi Portal eraikinaren kudeaketa	94
Azterketak eta lan teknikoak	83
HHSen bilketa	81
Diru-bilketa zerbitzuak	34
Turismoaren kudeaketa.....	33
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	41
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	3
GUZTIRA	1.975

(*) 11.935 euroren gastuak barne hartzen ditu, epai bat betetzeko ordainduak (ikus A.5)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

2017ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta diru-laguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
TRANSFERENTZIAK	223
Uribe Kostako Mankomunitatea, urteko ekarpena (*)	200
Uribe Kostako Behargintza SL, urteko ekarpena (*)	22
EUDEL, urteko ekarpena	1
IZENDUNAK	32
Plasentia Butron museoa (*)	21
Beste txikiago batzuk (3 onuradun)	11
LEHIA	82
Kirol diru-laguntzak (*)	59
Kultur diru-laguntzak	23
ZUZENAK	108
Plentzia telebista (*)	27
Arkote Arraun Taldea (*)	20
Microfilm short festival elkarteak (*)	14
Beste txikiago batzuk (38 onuradun)	47
BESTE BATZUK	13
Gorlizko HLHren gastuak finantzatzeko ekarpenak (*)	8
Turismo elkartearen kuotak	5
GUZTIRA	458

(*) Aztertutako transferentzia eta diru-laguntzak.



A.8 INBERTSIO ERREALAK, IBILGETUA ETA EPE LUZEKO FINANTZA INBERTSIOAK

Hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2017ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	SALDOA 17/01/01	EROSK. /ALTAK	SALDOA 17/12/31
IBILGETU UKIEZINA	429	(*) 16	445
Garapenean dagoen inbertsioa	390	-	390
Beste ibilgetu ukiezin bat	39	16	55
IBILGETU MATERIALA	27.034	(*) 543	27.577
Lursailak eta ondare naturalak	2.239	88	2.327
Eraikuntzak	12.286	13	12.299
Azpiegiturak	208	402	610
Makineria, instalak. eta tresneria	1.069	7	1.076
Altzariak	580	22	602
Lursailak egokitzea eta ondasun naturalak	2.747	9	2.756
Abian diren azpiegiturak	6.591	-	6.591
Bestelako ibilgetu materiala	1.314	2	1.316
IBILGETUKO INBERTSIOAK	-	(*) 13	13
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	-	-	-
TALDEKO ENPRESETAN EPE LUZ. FINAN. INBERTS.	40	10	50
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	27.503	582	28.085

(*) Aurrekontuko inbertsio errealeen kapituluak kontabilizatutako kopuruak.

Udalak kanpoko enpresa batek egindako inbentario bat du, 2017ko abenduaren 31n Udalaren ondarea osatzen duten jabetzen balioa erakusten duena. Ondasun-zerrenda hori 2019ko urtarrilean onartu zuen Udalbatzak eta balio teknikoak ez ezik (berrira ekartzeko kostua eta merkatuko egiazko balioa) kontularitzako balioak ere bereizten ditu, kontularitzako balioetan kostu historikoa, amortizazio metatua eta, aldea aterata, kontularitzako balio garbia ematen dituela. Alabaina, balantzean ageri diren saldoak eta idazpuru honen goiburuan laburbildu direnak ez datoz bat balio horiekin, eta ez da aldeetan justifikaziorik eskuratu. Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasunak ez dira balantzeko idazpuru bereizi batean kontabilizatzen, ez baitago horien inbentarioa besarkatuko duen ustiaketako erregistrorik.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Finantza inbertsioak epe luzera taldeko enpresetan

PLENBISAREN ESTATUTUEN ARABERA, SOZIETATEAREN SORRERAKO SOZIETATE KAPITALA 60.102 EURO DA ETA 2017KO EKITALDI ITXIERAN EKARPENAK EGIN DIRA, HONAKO XEHAKAPEN HONEKIN:

	Euroak milakotan
2014ko ekarpena.....	15
2015eko ekarpena.....	15
2016ko ekarpena.....	10
2016/12/31N PARTAIDETZAREN KONTULARITZAKO BALIOA	40
2017ko ekarpena (*).....	10
2017/12/31N PARTAIDETZAREN KONTULARITZAKO BALIOA	50

(*) Gastuen aurrekontuko 8. kapituluaren kontabilizatuak.

Gauzatzeko zegoen 10.017 euroren ekarpena 2018ko ekitaldian ordaindu eta kontabilizatu da.

A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

		Euroak milakotan				
	% interesak	Iraung.	Hasierak. saldoa	Saldoa 17/01/01	amort.	Saldoa berriak 17/12/31
Kutxabank SA.....	Euriborra 1 urte + 1,25	2019	550	178	59	- 119
ERABILITAKO ZORPETZEA GUZTIRA			550	178	59	- 119
				Epe laburreko iraungipena (ikus A.11).....		57
				Epe luzeko iraungipena.....		62

A.10 ZORDUNAK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen saldoen xehakapena, 2017ko ekitaldi itxieran:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
AURREKONTUKO ZORDUNAK	551
ZALANTZAKO KOBRAGARRITASUNEN SALDOAK	(436)
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK	7
ZORDUNAK ETA KOBRATZEKO BESTE KONTU BATZUK EPE LABURRERA	122



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinasunaren xehakapena:

Euroak milakotan					
KAPITULUAK	2014 eta lehen.	2015	2016	2017	GUZTIRA
Zerga zuzenak.....	161	29	45	76	311
Zeharkako zergak.....	84	3	7	5	99
Tasak eta bestelako sarrerak.....	46	2	30	1	79
Transferentzia arruntak	9	-	2	16	27
Ondare-sarrerak	17	2	-	-	19
Kapitaleko transferentziak.....	16	-	-	-	16
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	333	36	84	98	551
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak					(436)
AURREKONT. ZORDUNAK GUZTIRA, ZUZKIDURARIK GABE					115

Udalak nekez egingarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak (abenduaren 2ko 10/2003 FAREN 48.7 artikulua, BLHren toki entitateen aurrekontuei buruzkoa) eta, baita, 2016an jatorria duten kobratzeko saldoen % 80 ere.

A.11 HARTZEKODUNAK

Epe laburrean ordaindu beharreko kontuen xehakapena 2017ko abenduaren 31n honakoa da:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	133
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	214
Epe laburrera jasotako bermeak eta gordailuak	146
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzek.	61
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak	7
JASOTAKO MAILEGUENGATIK EPE LABURREKO ZORRAK (ikus A.9)	57
BESTE BATZUK	87
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak (ikus A.3)	30
Aurrekontuari ezartzeko dauden gastuak	57
PASIBO ARRUNTA GUZTIRA	491

A.12 DIRUZAINNTZA

Ekitaldi itxieran Udalaren Diruzaintza honako xehakapenaren arabera zegoen osatua:

	Euroak milakotan
	Saldoa
KONTZEPTUA	31/12/17
Kontu korronteak	1.526
Eperako ezarpenak	759
GUZTIRA	2.285

A.13 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Plentziako Udalaren Udaltzak 2012ko irailaren 27an egindako bilkuran hasiera batean Plentziako Hiribilduaren HAPO onartu zuen eta urriaren 17ko BAOn eman zen argitara. Gerora, baina, bertan behera utzi zen izapidea eta gaur egun indarrean dago 1992ko apirilaren 11ko Foru Agindu bidez behin betiko onartutako Arau Subsidiarioen testu bategina, 1994ko azaroaren 9an BAOn argitaratu zena, hurrenez hurreneko aldaketa eta garapeneko araudiarekin batera.

Lursaila birsailkatzeko hirigintzako hitzarmena, etxebizitzak eraikitzeko

1979ko martxoaren 30ean Udaltzak erabaki zuen obra-lizentzia bat ematea norbanako bati 12 etxebizitza eraikitzeko, 1988ko abuztuaren 12ko Alkatetza Dekretu bidez berretsi zena. Behin garajeen solairuko indusketa-, zimendu- eta eraikuntza-lanak eginak zirela, obrak eten egin ziren BFAk eskatuta, lur horretarako beste erabilera batzuk aurreikusi baitzituen. 1999ko azaroan Udalak obrak berriz hasteko eskaera jaso zuen, baina Arau Subsidiarioen arabera lurak ez-urbanizagarri izaera zuen eta honenbestez, 2000ko Alkatetza Dekretu bidez ebatzi zen ezinezkoa zela eskabide hori bideratzea. Hil bereko 26.ean hirigintzako hitzarmen bat izenpetu zuten Plentziako Udalaren Alkate Presidenteak eta lursailaren jabeak, zeinaren indarrez Udalak konpromisoa hartzen baitzuen Planeamenduaren Aurrerapen-agirian jasotzeko, harik eta behin betiko onartu arte, aipatutako lursaila egoitzarako hiri-lur modura birsailkatuko zela, 16 etxebizitza libre, merkataritzarako etxabeak eta garajeak eraikitzeko. Hitzarmenak aitortzen zuen, berebat, 1979an eman eta 1988an berretsitako lizentzia, eta eraikin berria salbuesten zuen obraren tasa eta udal zergetatik eta aprobetxamenduaren lagapenetik, nahiz etxebizitza kopurua handitu zen. Lursailaren jabeak, beste aldetik, uko egiten zion obra-lizentziak zirela-eta eska zitzakeen kalte-ordainak eskatzeari. Hitzarmen hori ez zitzaion Udaltzari aurkeztu onartzeko.

Hitzarmenean aurreikusitako birsailkapena ez da gauzatu eta honenbestez, Arau Subsidiarioen arabera, lurzoruak ez-urbanizagarri izaera izaten jarraitzen du eta gainera, lursaila paisaia aldetik babestutako eremuan dago kokatua. 2017ko maiatzean lursailaren egungo jabeek hirigintzako hitzarmena desgiteko egintza formulatu zuten eta 2,7 milioi euroren kalte-ordaina eskatu; ordea, Udaltzaren 2017ko irailaren 28ko erabaki bidez ezetsi egin zen eskaera. Administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri da erabaki horren aurka, txosten hau idatzi dugun datan ebazteko dagoena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14 PLENBISA

Sozietatea 2014ko maiatzean eratu zen “PLENBISA, Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Casco Histórico de la Villa de Plentzia, SA / PLENBISA Plentziako Alde Zaharra Birgaitzeko Hirigintzako Sozietate Anonimoa” izenarekin.

Estatutuen arabera, sozietatearen helburua da hiriko zaharberritze-jarduerak garatzea, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan eta beste zeinahi xedapenetan jasotakoak, eta adierazitako Dekretuan araututako zaharberritze integratuko kasuak barne hartzen ditu, lurralde-eremua Plentziako Hiribilduaren Alde Zaharrera lerratzen delarik.

Eratu zenez geroztik, sozietatearen jarduera mugatu da kontabilitateko liburuak eramatera eta urteko kontuak formulatzera, kanpoko enpresa baten bitartez, zeinak 2017an 1.758 euro fakturatu baitzuten.

A.15 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu, Udalak 1,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioetako 8 kontraturen lagin bat hartuta:

KONTRATUA	AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK						Euroak milakotan	
	ESLEIPENA			GASTUA 2017	AKATSAK		A	B
	DATA	PROZED.	ZENBAT.					
OBRAK								
1. Andra Mari Bidea urbanizatzea.....	ira-16	Irekia	359	395	A2,3,4	B1		
ZERBITZUAK								
2. Kale eta gainerako espazio publikoen garbiketa	aza-17	Irekia	258	22	A1,2	B2		
3. HHSen bilketa eta garraioa, udal kamioia garbitu eta zaintzea eta tamaina handikoak tratam. zentroetara garraiatzea	aza-17	Irekia	249	-	A1,2	B2		
4. Parkeak, lorategiak eta arboladia zaindu eta mant.	ots-17	Irekia	303	84	A1,2			
5. Kultura eta aisialdiko jarduerak kudeatu eta antolatzea "Goñi Portal" en egiteko	ots-17	Irekia	205	77	A2			
6. Herriko argiak zaindu eta mantentze-lanak.....	abu-14	Irekia	139	44		B2		
7. Ikastetxea eta Haurreskola garbitu eta zaintzea.....	aza-17	Irekia	75	-	A2			
HORNIDURAK								
8. LED argien hornidura.....	uzt-17	PGPN	72	72				
GUZTIRA			1.660	694				



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan		
AKATSAK	ESPEDIENTE KOP.	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA		
1. Pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideen akatsak	3	810
2. Pleguetan edo esleipen ebazpenetan zenbait informazio ez barne hartzea	6	1.449
3. Litzitazioen publikotasunari buruzko akatsak	1	359
4. Kontratua formalizatzean atzerapenak	1	359
B EGIKARITZA		
1. Kontratua betetzean atzerapenak	1	359
2. Kontratu-estaldurarik gabe egindako gastuak	3	(*) 148

(*) Akatsak eragindako gastuen zenbatekoa.

ABREVIATURAS

AES	Ayudas de Emergencia Social.
AG	Administración General.
BDNS	Base de Datos Nacional de Subvenciones.
BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CEIP	Centro de Educación Infantil y Primaria.
DA	Disposición Adicional.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
EELL	Entidades Locales.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
LRBRL	Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
NF	Norma Foral.
NNSS	Normas Subsidiarias.
OPE	Oferta Pública de Empleo.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
PIB	Producto Interior Bruto.
PPS	Patrimonio Público de Suelo.
PNSP	Procedimiento Negociado Sin Publicidad.
RD	Real Decreto.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
SAAD	Sistema de Autonomía y Atención de la Dependencia.
THB	Territorio Histórico de Bizkaia.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.





I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Plentzia para el ejercicio 2017.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

